



Ermuko emakumeen Asanblada: “Gaur egun legeak ez du bermatzen sare publikoan normaltasunez abortatzea”

Ermuko Emakumeen Asanblada Martxoaren 8a prestatzen. Urteekin egunaren izaera ez bada hasieran bezain errebindikatiboa ere, badago oraindik zer aldarrikatu eta aurtengo kanpaina, abortatzeko eskubidearen inguruan burutuko da.

Ermuko Emakumeen Asanblada sortu zenetik Martxoaren 8a ospatzen eta antolatzen. Zer dago ospatzeko eta zer errebin-dikatzeko?

Argi dago hasierako urte haietan gauza gehiago aldarrikatzen genituela. Izan ere, une hartan emakume moduan ez geneukan eskubiderik, eta berdintasunaren esparruan dena zegoen egiteke, beraz, aldarrikatzeko asko zegoen eta beharrezkoa zen gainera. Urteen joan etorriarekin, berdintasunaren esparruan zenbait aldarrikapen lortu dira, eta Martxoaren 8a, lorpenak ospatzeko, gure artean biltzeko eta gure lana errekonozitzeko eguna bilakatzen joan da. Halere, erabateko berdintasunera heltzeko lan handia dago egiteko, eta beharrezkoa ikusten dugu lanean jarraitzea. Horregatik, aurten abortatzeko eskubidea aldarrikatzen ari gara.

- Zeintzuk dira abortatzeko eskubidea eskatzeko mugimendu feministak izan dituen data esanguratsuak?

Hainbat data izan dira esanguratsuak, 1976an estatuan abortatzeagatik espetxeratutako emakumeen amnistia eskatu zenetik, antisorgailuen legeztatzea, doakotasuna eta despenalizazioa eskatu arte. Azpimarratuko



genuke, 1979tik 1982ra bitartean, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak, Bilboko 11 emakume eta gizon baten epaiketara ixteko kanpaina hasi zueneko, abortua praktikatzekoagatik epaitu behar zituztelako. Azkenean 1982an epaiketara egin zen. Une hortatik aurrera, mugimendu feministak ekitaldi ezberdinak burutu zituen: manifestazioak, hitzaldiak, jardunaldiak, sinadura bilketak... Ondorioz, abortua agenda publikoan sartu zen eta gizartean debatea sortu zen gaiaren inguruan.

- Hogei urte baino gehiago pasa dira eta abortatzeko eskubidea berriz ere mahai gainean. Zerk bultzatu du erreakzio hau?

2007ko azaroan Batzerlonako eta Madrilgo klinika batzuen itxierak eta ustez legez kanpoko abortuak egiteagatik hainbat lagunen atxilotetak ekarri du gaia berriz ere gure artera. Hori dela eta, hedabideetan berriari eman zitzaion tratamendu alarmista eta morbosoa salatu nahi dugu, interpretazio interesatuei bide ematen dielako, Espainian haurdunaldia nahita etetearen benetako errealitatea eta zein baldintzatan burutzen den itxuraldatzeko. Horregatik da garrantzitsua informazioa modu argi eta objektiboan ematea, gaia modu sentsazionalistan landu ga-

be, datuak behar bezala aztertuz eta kontrastatuz. Bestalde, eskuinaren aldetik burutu den eraso kanpaina salatu nahi dugu, horren guztiaren atzean bestelako interesak daudelako.

- Legea noiz sartu zen indarrean?

1983an, gobernu sozialistak abortuaren lege proiektua argitaratu zuen eta 1985ean egungo legea indarrean sartu zen. Abortuaren eskubidearen aldeko talde eta hainbat erakunde feministek gobernuaren proiektua ez zuten onartu mugatua zelako. Alegia, 3 kasutan izan ezik, abortatzeak penalizatuta jarraitzen duelako eta lege proiektuak ez duelako bermatzen abortua osasun publikoko sarean egin ahal izatea.

- Zeintzuk dira legeak sal-

"Eskulnaren aldetik burutu den eraso kanpaina salatu nahi dugu"

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

 torrekua z/g
 Tel/Faxa. 943 17 07 33
 fax publikoa

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

buesten dituen 3 kasuak gaur egun?

Haurdunaldia bortxaketaren ondorio denean, fetua arriskuan dagoenean eta haurdun dagoen emakumearen osasuna arriskuan dagoenean. Hiru kasu horietan abortua despenalizatua dago.

Kontuan hartu behar da, 2005eko datuen arabera, emakumeen %88k haurdunaldiaren lehenengo 12 asteen artean erabaki zutela haurdunaldia etetea. Gainerako %12etatik, %2 dira bakarrik 21 aste baino gehiagoko haurdunaldiak



"Hezkuntza eta informazioa ezinbestekoak dira prebentziorako"

eten zituztenak, eta ia guztiak fetuarentzako arriskuagatik egindako abortuak izan ziren, arrisku batzuk 21. astetik aurrera ikusten baitira.

- Salbuetsita dauden hiru kasu horietan egiten diren haurdunaldien etete gehienak sare pribatuan egiten dira. Zergatik?

Egiten diren abortuen %2,9 ospitale publikoetan egiten dira eta %97,1, aldiz, zentro pribatuetan. Datuek argi erakusten dute egungo legeriarekin sare publikoan normaltasunez abortatzea ez dagoela bermatua. Izan ere, onartzen diren hiru kasuetan ere, hainbat emakume behartuta daude hiri batetik bestera joatera, euren erkidegoan bertan edo beste erkidego batean. Esaterako Nafarroan eta beste zenbait erkidegotan, legeak onartzen dituen hiru balizkoetan ezinezkoa da abortatzea, medikuengan dagoen presioa-erengatik.

- Aurtengo kanpainarekin zer eskatzen duzue?

Haurdunaldiak etetea sarnitate publikoan era normalizatu burutu daitezela legeak jasotzen dituen hiru kasuetan. Era berean, sexu eta erreproduktzioarako eskubideen gainerako prebentziorako programa zabal eta eraginkorrak egotea

ezinbestekoa da, baita erkidego guztietan antisorgailu metodoak eskura izateko aukera ere. Horrekin guztiarekin batera, sexu hezkuntzarako zerbitzuak martxan jartzea beharrezkoa dela uste dugu, abortatzea ez baita inoren gustukoa eta hezkuntza eta informazioa ezinbestekoak dira prebentziorako. Gaur egun hezkuntza eta informazioa ez da inon ematen. Gogoratu behar da Ermuan 1994 eta 1995an sexu informazio bulego bat egon zela, jende gazteenarentzat oso gertukoa zena.

Bestalde, abortuaren despenalizatzea exijitzen dugu eta emakumeek euren gorputzaren gainean erabakitze eskubidea errespetatuko duen lege berria. Azkenik, Bartzelona eta Madrilen atxilotutako guztien askatasuna eta historien konfidentzialtasuna errespetatzea.

- Orain arte zenbait ekitaldi egin dira abortatzeko eskubidea aldarrikatzeko.

Urtarrilaren 17an elkarretaratzea egin zen Bilbon. Otsailaren 16an Iruñean manifestazioa egin zen eta otsailaren 29ra arte zabalik egon den autoinkulpazio kanpaina. Horrez gain, martxoaren 8aren inguruan gaia oinarritzat duten ekitaldi ezberdinak burutuko ditugu.

Alazne Aiestaran

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak,
bideoak, musika,
aparatoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA